

Donostia, 2017ko martxoaren 24a

IDAZKARI NAGUSIARI

KONTROL MOZIOA DONOSTIA –CO₂ EGITASMOA DELA ETA

Irabazi Donostia taldeko zinegotzi Loic Alejandrok, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikulua oinarri, KONTROL MOZIO hau aurkeztu nahi du. Mozioa Lurraldearen Garapen eta Planifikazio Batzordean, 2017/02/20an, aurkeztutako interpelazioaren ondorio da.

JUSTIFIKAZIOA

Joan den urtarrilean, Foru Aldundiak garatutako Argitu egitasmoari buruzko mozio baten bidez, energia elektrikoaren kontsumoa murrizteko neurriak ezartzeak duen garrantzia nabarmendu genuen.

Zinegotzi ordezkariak adierazi zuen Udalean “Donostia -CO₂” egitasmoa zegoela.

Atxiki diren etxeei hau proposatzen die egitasmoak:

- 1.kontagailu adimendun bat elektrizitate kontsumoaren segimendu zorrotza egiteko
- 2.ur, elektrizitate eta berokuntza gastua murrizteko aholkuak
- 3.metodologia bat energia kontsumoa eta kontsumoaren murrizketa ebaluatzeko

Otsaileko batzordean egitasmo horri buruz galdera egin ondoren, donostiarren partaidetzari buruzko datuak eman zituen. 2010az geroztik abian den egitasmo horretan, 25 etxek parte hartu dute, guztira (19 izan dira Alde Zaharrean, 15, Altzan, eta jabeekideen elkarte bat, hori ere, Altzan). Egitasmoan parte hartzen duten etxe kopuru eskasarengatik harrিতuta, planteatu genuen egitasmoaren berri modu egokiago batean eman behar zela, are gehiago, jakinda, parte hartzen ari ziren etxeen energia aurrezpena % 15 inguru zela.

Hil honetako batzordean, non gaia berriro aztertu baitugu ikusita atxikitako etxeen kopuru txikia, gobernuari planteatzen genion egitasmoa hedatzen inplikazio handiagoa behar zela, aurrezpenei buruzko datuak esanguratsuak ziren eta. Harrigarria dirudi ezen, edozein herritar atxiki daitekeela jakinda, egitasmoak arrakastarik apenas izatea. Gure taldetik, proposatzen dugu gobernuak egitasmoaren existentziaren berri eman behar duela komunikazio kanpainaren baten bidez.

Funtsezkoa iruditzen zaigu, halaber, gobernuak, energia gastua txikiagotzea ahalbidetzen duen egitasmo hau hor dela aprobetxatuz, proposatzea baliabide gutxien dituzten etxeak, gizarte larrialdi laguntzen babesa jasotzen dutenak, *Donostia -CO₂* egitasmoa atxikitzeko aukera.

2

Gogorarazi nahi dugu gizarte larrialdiko laguntzen zati handi bat argia eta gasa ordaintzera bideratzen direla. Zehazki, Gizarte Ekintzako 2015eko memoriaren arabera, hurrenkeran bigarren tokian den kontzeptu horretara, guztira, 750.117,77 euro bideratu ziren, hau da, emandako laguntza guztien % 32.

Horregatik, beharrezkoa da Gizarte Ekintzako eta Ingurumen Zuzendaritzaren arteko koordinazioa areagotzea, ikusteko energia aurrezteko zer neurri ezar daitezkeen premia handienak dituzten etxe horietan.

Ezinbestekoa da udal gobernuak energia kontsumoa oro har murrizteko neurriak garatzea, bi arrazoi hauengatik: bat, diru asko aurreztuko litzateke GLLtan, eta bi, agerikoak diren ingurumeneko arrazoiak.

Hori dela eta, hau da gure

KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udalbatzak udal gobernuari eskatzen dio gara dezala komunikazio kanpaina bat energia gastuaren fakturretan batez beste % 15 aurrezteko ahalbidetzen duen *Donostia -CO₂* egitasmoaren berri emateko donostiarrei.

2. Donostiako Udalbatzak udal gobernuari eskatzen dio proposa diezaiela, banan-banan, Gizarte Ekintza eta Ingurumeneko Zuzendaritzekin elkarlanean, gizarte larrialdiko laguntzak jasotzen dituzten etxe guztiei *Donostia -CO₂* egitasmora atxikitzea.

Izpta.: Loïc Alejandro,
Irabazi Donostia taldeko zinegotzia.